



## HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

**Data:** 2024-03-14 **Bilera zenbakia:** 36

**Bilera ordua eta lekua:** 19:00 bilera gelan

**Parte-hartzaileak:**

## LANDUTAKO GAI ORDENA

### 1. Azken batzordeko etxeko lanak.

*Korrika lagun sobrea eman jubilatuei; Ikerri eman diote ekarpena.*

*2025eko egutegirako ideia proposamenak ekarri:*

*“Herriaren eboluzioa” guraso elkarteak proposatu du.*

*“Itsasondoko txoko kuttunak” gazteek proposatu dute.*

*“Itsasondoko meategiak” jubilatuek proposatu dute.*

*Jubilatuek hitz egingo dute eta beste proposamenik balute, ekarriko dute. Dauden ideiak batu eta zozketa egingo da gaia aukeratzeko, aste santurako egitea komeni da.*

*Gazteekin hitz egin herri eguna eta bertso saioa batzeko; ez dute begi onez ikusi eta 8an egingo dute herri eguna.*

*Bihotzarekin koordinatu jubilatutako bidaia; komentatu dugu aurrekonturen bat edo behar izanez gero eskatzeko.*

*Jubilatuen barandilla eta badenaren gaiak arkitektoarekin partekatu; partekatu dira eta eskertzen da egindako lanak balorean jartzea.*

### 2. Azken ekintzen balorazio laburra

Otsailaren 17an zuhaitz eguna; oso ondo joan zen, jendea animatu zen eta landare berri ugari landatu ziren.

Otsailaren 16an Zirku tailerra izango da; Ekintza primeran joan zen baina, berriz ere, izena eman gabeko ugari azaldu ziren.

Otsailaren 23an Memegintza tailerra; Oso ekintza polita izan zen, baina oso jende gutxi parte hartu zuen.

Kulturartekotasun tertulia; Balorazio positiboa egin dute ongizate lantaldetik. 12 lagun inguru elkartu ziren eta elkar- ezagutza sustatzea zen helburu.

### **3. Hurrengo ekintzak herrian**

Martxoak 9ko bazkaria eta Beatriz Egizabal

Martxoak 14, 18:00 pintxo jana- 19:00etan Bizkarsoro Altzagan  
Podologoa, Itsasondon.

Martxoak 15, 19:00etan Ianire, Eider eta Esti solasaldi-emanaldia  
Kantu afaria Araman

Martxoak 22, Korrika txikia

Martxoak 23, Herrien arteko bazkaria

### **4. Elkartetatik datozenak.**

Ez da apartekorik komentatu.

### **5. Besteak:**

- Aldizkaria 56. Zenbakia, balorazioa; Balorazioa ona egin da, Koro medikuaren elkarrizketa orohar asko gustatu da.
- Musika eskolako galdetegiren ondorioak aipatu dira:
  - Musika zerbitzua egotea baloratzen da eta beharrezkoa ikusten da.
  - Herriari egokitutako zerbitzua izatea beharrezkoa ikusten da.
  - Metodologia dinamikoa beharko luke: musikarako zaletasuna sustatzea eta ondo pasatzea helburu ikusten direlako.
  - Musika eskolak herri dinamikan inplikazioa izan beharko luke.
  - Helduentzako zein haurrentzako zerbitzua dela zabaldu behar da.
  - Prezioak eskuragarriak izan behar dute, herritar guztiek parte hartu ahal dezaten.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Ekintzen berri eman elkarteetan</i>	<i>Denok</i>	
<i>Korrika egitaraurako izen emate/ txartel erosketa gogorarazi</i>	<i>Denok</i>	
HURRENGO BILERA		
<b>Hurrengo bilera: <span style="color: red;">Apirilak 10, 19:00</span></b>		

- Herri bizi batzordeko egutegia  
Martxoak 6, Apirilak 10, Urria 9 eta azaroak 6  
Maiatzak 8, ekainak 5, uztailak 10 eta irailak 4 jai batzordeak izango dira.